


## KORRONTZI DANTZAN

Korrontzi folk taldea (Mungia, Bizkaia, 2004) jarrera berberarekin doa bere ibilbide tradizional, herrikoi eta garaikidearekiko, zintzo eta temati Euskal Herriko musikaren nortasunak gorde, erakutsi eta berrituz unerik une. Korrontzi taldearen egunerokotasunaren indarrak egin du etenik gabeko urrats gaurkotuak ematera. Trikitia bihotz eta bizkarrezur bezala hartuta beronekin mundu desberdinak ezagutu, beti berrikuntzen bila, ikuskizunaren alde. Korrontzi taldea Agus Barandiaranen gidaritzapean hazi eta hazi ari da. Urtero proiektuak erditzen eta musika tradizionalaren sustraietan murgilduta. Atzean ditu bost disko, disko bilduma askotan euren abestiak agertuko dira, ARC diskoetxea ingelesak “Tradition 2.1” diskoa mundu osorako argitaratu du. Taldearentzat egokiena eta onenaren bila. Beti bila, beti egile, beti tradizio, beti garaikide, azkenaldian Euskal kulturaren eta trikitiaren enbaxadore. Agidanez, dantzari helduko dio seigarrenean.
Korrontzi Dantza da Korrontzi taldearen seigarren diskoa, liburua gehi CD eta DVDa. Hainbat koreografo ezagunek dantzak sortu zituzten propio Korrontzi taldearen musikan oinarrituta. Edu Muruamendiaraz, Jon Maya Sei, Igor Yebra, Izaskun Iturri, Arkaitz Pascuas & Nagore De Las Cuevas, Oinkari Dantza Taldea, Eneko Gil Alberdi koreografoek Korrontzi taldearen musikarekin propio egindako dantzekin osatutako bilduma da Korrontzi Dantzan CD-DVD lana. Musikari, dantzari, dantza irakasle, bideogile, argazkilari batu dira Korrontzi Dantzan ekimena gorpuzteko Agus Baradiaranen agindupean. Erdietsitakoa goi mailako lana da. DVDak erakutsi eta irakatsi egingo du baduelako gogo didaktikoa dantzen barruko mamiak irakasteko nahi duen dantzariari. Ikuskizuna begietatik sartu ohi denez, DVDak argia baino ez dio emango seigarren diskoari, argia dantzari, argia Korrontziri.
Korrontzi Dantzan Agus Barandiaranek ideiatutako eta zuzendutako proiektu eta ekoizpena da, 2015eko irailaren 22tik 27ra grabatu da Mungiako Olalde aretoan.

“Korrontzi Dantzan” biraren hasiera

- **PONTE DE SOR** (Portugal): 2015/11/14. “Musicando” proiektuaren Ponte de Sor ikastetxe desberdinetako ikasleak
- **BARTZELONA**: 2015/11/22. Bartzelonako Euskal Etxeko Dantzariak
- **DURANGO**: 2015/12/08
- **MADRIL**: 2015/12/13. Madrilgo Sustraia Dantza Taldea
- **HAZPARNE**: 2016/01/23. Elgar Oinka Dantza Taldea
- **ROTTERDAM** (Holanda): 2016/02/20. “Celtic and dance Event”
- **ATARRABIA**: 2016/02/21. Atarrabiako dantzariak
- **AMURRIO**: 2016/02/27. Aiara Entrexata Dantza Taldea
- **TAFALLA**: 2016/03/05. Tafallako Dantza Taldea
- **MUNGIA**: 2016/03/12. Amilotx Dantza Taldea
- **LEITZA**: 2016/03/19. Aurrera Dantza Taldea
- *...*

ritxi aizpuru (2015eko azaroaren 18)

Zer nolako garrantzia duen musikak gure bizitzan, ezta? Jaio baino lehen gure amaren bihotz-taupadek lehenengo erritmoa sortu zutenetik, bizi-melodia bihurtuz, musika ez da inoiz eten. Sagardoa egiteko sagarra txikitzen zenean, kolpeak jolas bihurtu ziren eta jolasetatik musika egitera pasa zen. Era berean, munduko herriek beraien musika sortzen dute eta, honekin batera, beraien kantak eta dantzak. Euskal Herriak ere, nola ez, bere musika eta bere erritmoei lotutako dantzak izan ditu. Hasiera batean, herri bakoitzak bereak; baina geroxeago, dantza taldeei esker, garrantzitsuenak herrialde batetik bestera zabaldu ziren. Eta dena eginda zegoela pentsatzen genuenean, Korrontzi agertu zen, azken urte hauetan euskal musikak eta dantzak izan duten ekarpen nabarienetarikoa. “Korrontzi Dantzan” egitasmoari esker, antzinako tradizioa moldatu eta errepertorio berria sortu da eta, gainera, koreografia ikusgarriak zabaltzen ari dira herriz herri, Ezkerraldeko Labe Garaietatik Erronkariko basoetaraino, bertoko dantza taldeekin elkarlan bukaezina burutuz. Gaur egun, Korrontzi Euskal Herriko ikur bihurtu da. Kanpora begira, infernuko hauspoaren soinua mundu osoko jaialdietan entzun daiteke. Euskal Herrian, berriz, XXI. mendeko kantak eta dantzak eraikitzen dirau. Folklorea eta kultura bizirik dagoen errealitatea dira. Belaunaldi bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu eta, gaur egun, Korrontzik lan hori burutzen du hain zuzen: gure errepertorioan betirako geratuko diren kantak eta dantzak sortu, moldatu eta zabaldu.
Entzun eta gozatu!

**ARITZA BERGARA ALUSTIZA**

Nire maixu Rufinok, trikitixaren lehen notak irakastearekin batera, argi azaldu zidan eskuartean neukan instrumentu hark dantzan jarri behar zuela neronen musika entzuten zuen edonor. Horretan ahalegindu naiz 13 urte neuzkanetik hona, plazaz plaza, jaialdiz jaialdi, herrialdez herrialde... Zortea izan dut urte hauetan, nire musikak dantza eragiteaz gain, koreografo hoberenetariko batzuk ere inspiratu egin dituelako.
Esku artean daukazun lan hau dantza berri horien bilduma da, non ikusi zein ikasi ahalko dituzun. Aupa Rufino!

**AGUS BARANDIARAN**

Agus Barandiaran: trikitixak eta ahotsa
Ander Hurtado de Saratxo: txalaparta, perkusioak eta bateria
Kike Mora: kontrabaxu elektrikoa, baxu elektrikoa eta koruak
Alberto Rodríguez: gitarra, mandolina, oktabatutako mandolina eta koruak

web: www.korrontzi.net
telf.: (+34) 618 072 076
email: korrontzi@gmail.com korrontzidantzan@gmail.com
facebook: http://www.facebook.com/Korrontzi-Folk-960901977277922
twitter: twitter.com/Korrontzi

baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)




## KORRONTZI DANTZAN

Korrontzi folk banda (Mungia, Bizkaia, 2004) sigue honesta y obstinadamente guardando la personalidad de la música de Euskal Herria con su carrera tradicional, popular o contemporánea, pero también incorporando novedades a cada paso dado. Así evoluciona Korrontzi. La fuerza de la cotidianidad no tiene quebranto en Korrontzi para dar los ciclos musicales necesarios. La triki como corazón y columna vertebral envolviendo su visión molecular a nivel mundial, siempre en busca de la creación novedosa, siempre a favor del espectáculo. Korrontzi se va construyendo y creciendo siempre con la dirección de su alma mater, Agus Barandiaran. Cada año aporta nuevos proyectos a su carrera a favor de la música tradicional y de raíz. Quedan atrás cinco discos, muchas canciones incluidas en bastantes discos recopilatorios, la discográfica inglesa ARC ha editado a nivel mundial su trabajo “Tradition 2.1”. Todo ello para mejorar y agrandar Korrontzi. Siempre buscando, siempre autor, siempre tradicional, siempre contemporáneo y últimamente embajador de la cultura vasca y de la triki. Según parece, el sexto se abraza a la danza.

Korrontzi Dantzan es el sexto de la saga Korrontzi, libro, CD y DVD. Ciertas canciones de Korrontzi han sido inspiración para los bailes creados exclusivamente con la música de Korrontzi por reputados coreógrafos como Edu Muruamendiaraz, Jon Maya Sein, Igor Yebra, Izaskun Iturri, Arkaitz Pascuas & Nagore De Las Cuevas, Oinkari Dantza Taldea, Eneko Gil Alberdi. Este disco recopila esas canciones y bailes que ha juntado a numerosos músicos, dantzaris, profesora de danza, directora de vídeo, fotógrafos, trabajadores culturales varios para la confección de Korrontzi Dantzan, creado y dirigido por Agus Barandiaran. El conjunto logrado es un trabajo de alto nivel. En el DVD se pueden ver todas esas danzas, pero tiene un componente didáctico ya que enseña a aprender algunas de las coreografías. Como el espectáculo entra por la vista, el DVD es el faro de este sexto disco, faro para dantzaris, faro para Korrontzi.

Korrontzi Dantzan es un proyecto cuya producción la ha ideado y dirigido Agus Barandiaran. El CD-DVD ha sido grabado del 22 al 27 de septiembre del 2015 en la sala Olalde de Mungia.

**Comienzo gira “Korrontzi Dantzan”**

- **PONTE DE SOR** (Portugal): 14/11/2015. Proyecto “Musicando” con alumnos/as de diferentes escuelas de Ponte de Sor
- **BARCELONA**: 22/11/2015. Dantzaris de Euskal Etxea de Barcelona
- **DURANGO**: 08/12/2015
- **MADRID**: 13/12/2015. Sustraia Dantza Taldea de Madrid
- **HAZPARNE**: 23/01/2016. Elgar Oinka Dantza Taldea
- **ROTTERDAM** (Holanda): 20/02/2016. “Celtic and dance Event”
- **ATARRABIA**: 21/02/2016. Dantzaris de Atarrabia
- **AMURRIO**: 27/02/2016. Aiara Entrexata Dantza Taldea
- **TAFALLA**: 05/03/2016. Tafallako Dantza Taldea
- **MUNGIA**: 12/03/2016. Amilotx Dantza Taldea
- **LEITZA**: 19/03/2016. Aurrera Dantza Taldea

*...*

**Qué importante es la música en nuestras vidas ¿verdad? Incluso antes de nacer los latidos del corazón de nuestra madre van convirtiéndose en los primeros ritmos, melodías de vida. Y así, la música no se interrumpe jamás. Al igual que para elaborar la sidra, al triturar la manzana, los golpes se volvieron juegos, su posterior evolución hizo surgir la música. Cada civilización ha ido generando su propia música, sus canciones, sus danzas. El Pueblo Vasco no podía ser una excepción. En un principio cada localidad tenía sus cantos y sus danzas pero más tarde, de la mano de los grupos de danzas, se produjo una cierta unificación, propagándose de pueblo en pueblo las más importantes, las más vistosas. Y cuando pensabamos que estaba todo inventado apareció Korrontzi, aportando una nueva visión en esta conjunción entre música y danza. Gracias al proyecto “Korrontzi Dantzan” se ha adaptado la tradición, generando un nuevo repertorio en el que coreografías espectaculares se van difundiendo pueblo a pueblo, llegando desde los Altos Hornos de Ezkerraldea hasta los lejanos bosques de Erronkari, en un inmeso trabajo en colaboración con cada grupo de danza local. Korrontzi es, a día de hoy, un símbolo del Pueblo Vasco, uno de nuestros iconos. De cara al exterior, el “fuelle del infierno” se puede oír en los festivales más importantes del mundo al tiempo que en Euskal Herria se están contruyendo las nuevas bases de las canciones y danzas del siglo XXI. Porque el folclore y la cultura son elementos vivos en los que cada generación hace su contribución y actualmente, Korrontzi, cumple ese cometido con su trabajo: la creación, adaptación y difusión de canciones y danzas que quedarán para siempre en nuestro repertorio.**

**ARITZA BERGARA ALUSTIZA**

**Mi maestro Rufino, a la vez que me enseñaba las primeras notas de la trikitixa (acordeón diatónico vasco), me dijo claramente que el instrumento que tenía entre manos debería poner a bailar a toda persona que escuchase mi música. Desde que cumplí 13 años ese ha sido mi empeño en cualquier plaza, festival o país que he tocado. La suerte me ha acompañado ya que a parte de que mi música se haya bailado, ha sido, asimismo, fuente de inspiración para un elenco de coreógrafos. En este trabajo podrás ver un compendio-recopilatorio de todas esas nuevas danzas, así como aprender sus coreografías ¡Aupa Rufino!**

**AGUS BARANDIARAN**

Agus Barandiaran: trikitixas y voz principal
Ander Hurtado de Saratxo: txalaparta, percusiones y batería
Kike Mora: contrabajo eléctrico, bajo eléctrico y coros
Alberto Rodríguez: guitarra, mandolina, mandolina octavada y coros

web: www.korrontzi.net
telf.: (+34) 618 072 076
email: korrontzi@gmail.com korrontzidantzan@gmail.com
facebook: http://www.facebook.com/Korrontzi-Folk-960901977277922
twitter: twitter.com/Korrontzi

ritxi aizpuru (18 de noviembre de 2015)

baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)